

2019ko ESAEREN AZALPENAK (2019-V-04)

1. ABERATSAK, POPAN HATSA

Popa: Itsasontzien atzealdea; hedaduraz, ipurtaldea edo ipurdia /
Hats: usain txar, kirats

Aberatsak pribilegiatuak dira zentzu ugaritan: diru askoren jabe direnez, nahi duten (ia) guztia egin dezakete, eta besteok baino hobeto bizi izaten dira. Hala ere, haiek ere ipurdia daukate, eta ipurdiak usan txarra izaten du, tokatzen zaion funtzio fisiologikoa dela-eta. Hortaz, gauza batzuetan behintzat, aberatsak beste guztiok bezalakoak izaten dira.

Horri gehitzen badiogu aberatsak, kasu askotan, ustelkeriaren bidez bihurtu direla dirudun, ez da arraroa pentsatzea aberats batzuei "usain txarra" dariela.

2. ABERE GAIZTOA DA GORROTOA

Abere: animalia, batez ere gizakien etxeetan bizi direnak

Gorrotoa sentimendu bortitza da; barru-barrutik ateratzen zaigu, eta oso-oso zaila da maneiatzen. Horregatik esaten du esaera zaharrak gorrotoa animalia bat bezalako dela, maiz ezin delako kontrolatu. Kontrolagaitza ez ezik, gaiztoa ere izaten da: gorrotoak bultzatzen gaitu, ia pentsatu gabe, ekintza ankerrak egitera; hori dela eta, egoera normal batean sekula egingo ez genituzkeen gauzak egin ditzakegu gorrotoaren mende gaudenean.

3. ADISKIDEAK, ZAINDU BEHARREKOAK

Adiskideak zaindu behar ditugu (onak, batez ere; besteez ez kezkatu, total...). Azalpen gehiagorik behar duzu? Horrela bada, ez duzu zuk lagun askorik, edo onik, ezta merezi ere agian...

4. AHAL DUENA EGITEN DUENARI EZ GEHIAGO ESKATU

Argi dago, ezta? Norbaitek bere gaitasun osoan ematen badizu laguntza, ezin diozu gehiagorik eskatu. Niri, adibidez, ezin didazu eskatu azalpen argi, ulergarri, bikain, dotore, poetiko, aberats, koherente eta shakespearatar* hauek baino gehiagorik.

* Hitz hau ez dago hiztegiatan. Asmazio berria da (azalpengilearen** oharra).

** Hau ere ez, bistan da.

5. AHANTZI NAHI DENAZ, BETI ORROIT

Ahantzi: ahaztu, atzendu / *Orroit*: oroitu, gogoratu

Ez galdetu zergatik den, baina egia biribila da: zerbait ahaztu nahi baduzu (mingarria delako, lotsagarria delako, errudun sentitzen zarelako, edo beste edozein arrazoiengatik), etengabe gogoratuko duzu, ez duzu burutik kentzerik. Psikologoek jakingo dute horren zergatia, beharbada.

6. AITZAKIA BILA DABILENAK BETI AURKITZEN DU

Aitzakia: arrazoi alegiazko edo gezurrezkoa, egiazko zergatia estaltzeko ematen dena (ga: excusa, pretexto; fr: prétexte, excuse)

Giza adimenak ez du mugarik, eta, edozein pertsonak, baldin eta zerbait egin nahi ez badu, beti topatuko ditu beharrezko dituen aitzakia eta

estakuru guztiak. Zuk zenbat aitzakia asmatu duzu zeure bizitzan? Nik, egia esango dut, baten bat...

7. ARRAZOIA, LEGEEN GAINETIK

Zer da "legea"? Euskaltzaindiaren arabera, legea da "Gizarteko agintaritzak ezarritako arau edo arau-multzo bete beharrekoa". Hortaz, gizarteko edo jendarteko botere-organoek ezartzen dute (ez gizarteak berak), eta nahitaez bete behar dira. Zer gertatzen da, orduan, legea bidezkoa ez denean (adibidez, AEKetakako edo Hegoafrikako segregazio-legeak, abortuaren kontrako arauak hainbat herrialdetan, edo judutarren aurkako legeak Alemania nazionalsozialistan)? Horrelako kasuetan, legea eta arrazoia elkarren kontra daudenean, zeri kasu egin? Esaera honen arabera, arrazoia hartu behar da aintzat, beti.

8. ASKO BALIO DU INDARRAK, GEHIAGO BURU AZKARRAK

Azkar: argi, adimentsu

Indarra beharrezkoa da; are beharrezkoagoa burua (hots, adimena).

Erdaraz: "Más vale maña (trebezia, ez emakume aragoitarra) que fuerza".

9. ASTO BATEK BAINO BIK GEHIAGO DAKIE

Dakie: dakite

Astoak ez omen dira abere argi-argiak, inondik inora; hala ere, haietako bi elkartzuz gero, pentsatzeko gaitasun handiagoa izango dute banaka baino. Guretzat ere, gizakiontzat, balio du kontzeptuak. Hortaz, aukeratu zu bezalako beste asto bat, eta elkartu harekin hobeto pentsa dezazuen. Zergatik uste duzu, bada, Esaera Zaharren txapelketan jendeak taldeka hartu behar duela parte eta ez banan-banan? Bada, barregarri gera ez zaitezten...

10. BAKARRIK EZIN DANEAN, LAGUNTZA ESKATZEA EZ DA LOTSA

Konturatzen bagara ez dugula indar nahikorik lan zeregin edo eginbehar handi bat burutzeko, orduan beharrezkoa (bezain ezinbestekoa) izanen da laguntza eskatzea. Ez dugu zertan lotsatu horrelakoetan. Kontuz ibili urguiluarekin, arriskutsua bezain kaltegarria da-eta!

11. DIRUA ETA EZTULA, EZIN IZKUTATU

Izkutatu: ezkutatu, ostendu, gorde

Gauza batzuk ezin dira ezkutatu, edo gordean eduki, begi-bistakoak baitira. Adibidez, eztula eta dirua (eztula, zaratarengatik; dirua, handikeria nabarmenarengatik). Maitasuna ere antzekoa omen da, baina ez nago ni horren seguru.

12. EDER EDO ITSUSI, ZEIN BEGIK IKUSI

Estetika hagitz kontu subjektiboa izaten da: nork nor ikusi, hala baloratu.

Kenduta Esaera Zaharren Txapelketako antolatzaile-taldeko kideak (mundu guztiaren ustez baitira jator, atsegin, azkar eta *mega-euskaltzaleak*), gainontzeko guztien/guztion edertasuna erabat erlatiboa da. Edertasuna, beraz, begiratzen duenaren buruan dago, ez kanpoaldean.

13. ELEA ZILAR DELA, IXILTZEA URRE

Ele: hitz, berba / *Zilar* (plata; argent) / *Urre* (oro; or)

Hitz egiteak asko balio du, ziur (bueno, hizlariaren arabera); alta, sarri, gehiago balio du isiltzeak, dela ez delako komeni hitz egitea, dela egoera zail bat baretzeko... Arabiarrek honen antzeko zerbait esaten dute: *Egizu hitz, soilik baldin eta esango duzuna ederragoa bada isiltasuna bera baino*. Ulertu duzue? Bai? Orduan, ixo denok!

14. ERORIENA IZANIK ERE, ALTXA DITEKE

Diteke: daiteke

Arazo larriren batean egonda ere, sakoneraino jausita ere, edonor altxa daiteke. Beti dago bigarren aukeraren bat, eta sekula ez da itxaropena galdu behar. Gora bizitza! (hain da polita kontzeptua, ezen arrosaz idatzi baitugu azalpen hau).

15. ESKERRIK ASKO EZ DA GAUZA ASKO!

Modu bitan uler daiteke, gutxienez, esaera hau. Ikus dezagun:

a) Eskerrak ematea ezer gutxi da, huskeria, gure alde egindako mesedearen aldean. Gainera, "Mila esker" esateak ez du esfortzu txiki-txiki bat baizik eskatzen.

b) Norbaiti eskerrak ematean, berak apaltasunez "ez da gauza asko" erantzun diezazuke (ahal dizu), aurreko mesedeari (berak eginikoari) garrantzia kentzeko-edo.

Hortaz, esaera honen bidez esan nahi dugu: a) "eskerrik asko" esateak ez du asko balio, edo b) lehengo mesedeak ez du eduki garrantzi handirik.

16. EUSKARAZ JAKIN, EGITEN DUENAK DAKI

Nor ote duzue bene-benetako euskalduna, lerro hauen egile xumea eta gure Txapelketako antolatzaile bipilak aparte utzita? Bada, ahalik eta gehienetan euskara erabiltzen duena. Asko-asko-asko jakinda ere, erabiltzen ez baduzu, ez zara izango benetako/benazko/egiazko/zinezko euskaldun zein euskaltzale *berdaderoa*. ¿Queda claro? Est-il clair ?

17. EZ NEHORI KEN ESPERANTZA

Nehori: inori / *Ken*: kendu (agintera)

Horixe: ez iezaiozu inori ken itxaropena. Zuk ez duzu ezer irabaziko horrela, eta besteak (itxaropenik gabe utzi duzun horrek) are gutxiago. Behingoagatik, izan zaitez pertsona ona.

18. EZTA GAITZIK ONIK EZ DAKARRENIK

Gaitz: kalte, min, eritasun (hau da, zerbait txarra)

Askotan, maiz, sarri(tan), usu, gauza txarrek nolabaiteko ondorio ona ekartzen dute. Adibidez, ezin dugu esan garuneko odoljariora berez ona denik, baina herritar sobietar asko izugarri poztu ziren horrelako gaitz batek akabatu zuenean Iosif Visarionovitz Jugaxvili "Stalin", 1953an. Erdaraz: "No hay mal que por bien no venga".

19. GAITZ GOGORRENAK ERE BADU BERE AZKENA

Gaitz: kalte, oker, min / *Azkena*: amaiera, bukaera

Erljio- eta filosofia-liburuek diote hasten den oro bukatu egiten dela. Hortaz, den-dena amaituko da inoiz, baita munduko egoerarik txarrena ere. Pazientzia eduki behar, hori da dena. Erdaraz: *No hay mal que 100 años dure*.

20. GALDU BEHAR DANA EZIN GORDE

Dana: dena

Bizitzan gauza asko galdu behar ditugu goiz ala berandu: inozentzia, gaztetasuna, amets eta ilusioak, ohiturak, edertasuna (kasuaren arabera), lagunak, ahaideak, maitasuna, ilea, xalotasuna, irribarrea, beldurrak, lotsa, oroimena, ohitura onak (eta txarrak), ahotsa, indar fisikoa, prestutasuna, dirua, denbora, umorea, zintzotasuna, tripa laua... Horiek denak ezin dira gorde, nahita ere. Ez saiatu, beraz, azkenean galduko duzun horri eusten, alferrik da-eta.

21. GORAINZIAK ASKO, MERKEAK DIRA TA

Goraintzi: aurrean ez dagoenari beste baten bidez bidaltzen zaizkion diosalak, eskumuinak / *Dira ta*: dira-eta, baitira, direlako

Bizitzan eta harreman sozialetan, heziketa onekoa eta egokia da goraintzi asko ematea, besteak beste ez direlako batere garestiak. Alegia, erraz ematen dugu doan musu truk edo debalde dena.

22. GURASOAK BETIKO EZ DIRA

Guztiok hilko gara egunen batean, baita (tamalez) geure aita-amak ere. Beraz, adi: ezin gara beti gurasoen kontura bizi, ezin izango digutelako lagundu urtez urte *per secula seculorum* ("mendez mende", latinez*).

* izan ere, azalpen hauek funtzio bikoitza dute: esaeren zentzua argitzea eta, bide batez, "kulturilla" (ez "kultur hila") hedatzea irakurleon artean.

23. GUZTIA GURA IZATEA, GUZTIA GALTZEA

Gura izan: nahi izan, gogo izan

Den-dena nahi dutenek erraz galtzen dute guztia, arrisku larriegiak hartzen dituzte-eta. Izan ere, edozein ikuspuntutatik begiratuta ere, diruzalekeria beti da txarra. Erdaraz: "La avaricia rompe el saco".

24. HABORO BALIO DU, 'TO' BATEK EZIK BI 'EGIK'

Haboro: gehiago / *To!*: hartu! Tori! eutsi! / *Ezik*: ezen ez, baino / *Egik*: egin ezak, egin ezazu

Gehiago balio du zerbait momentuan hartzeak, besteengandik zerbait jasotzeak (opariren bat-edo), ezen ez soilik aginduren bat hartzeak, nahiz eta agindutako hori oso ona izan. Izan ere, ikusten dugunak zerbait balio du; baina hitz hutsek, ezer gutxi. Erdaraz: "Más vale pájaro en mano, que ciento volando".

25. HAMAR KILO GATZ JAN BEHAR DA, ELGAR EZAGUTZEKO

Elgar: elkar

Denbora luzea behar da bi pertsonak (bikote batek, alegia) ondo-ondo ezagutzeko elkar: horretarako, ezinbestekoa da zenbait urteko bizikidetza. Bide batez, galdera: zenbat hil/urte behar du bikote batek 10 kilo gatz jateko bien artean? (eta haietako batek hipertentsioa badu, zer?) Aitor dezadan ene ezjakintasuna gai horretaz, eta oso gatz zalea naiz!

26. HASTEAK ERRAZ, IRAUTEA ZAIL

Aise, erraza da zerbaitetan hastea (negozio, lan, jarduera, kirol, zaletasun, (bikote)-harreman, liburu autobiografikoa...); zailagoa, ordea, horretan jarraitzea. Hasteko, gogoia baino ez da behar; segitzeko, aldiz,

iraunkortasuna edo pertseberantzia. Eta denok dakigu gogo oso laster desagertu ohi dela, askotan lehendabiziko zailtasuna agertzearekin batera. Ni, adibidez, dagoeneko nekatuta nago azalpenok idazten, eta 74 falta zaizkit! Ai, ene!

27. HAURRAK ESKOLARA ABIATU, BAKEA ETXEAN SARTU

Abiatu: joan

Ez da gauza bera etxe batean ume bat, edo bi, edo hiru... egotea, edo ume horiek guztiak eskolan egonda (irakasleak ardura bitez haiek zaintzeaz, horretarako kobratzen dute-eta), etxea bake santuan edukitzea. Ez, ezta? Guraso guztiok ari zarete orain burua goitik behera mugitzen, ados zaudetelako seinale.

28. IBILTARI GAUEAN, LOGALE GOIZEAN

Ekintza guztiek dakarte ondorioren bat: gauetz hor zehar ibiltzen bazara (lo egin beharrean), logale (logura) egongo zara goizean. Bai, ezta? Izan ere, txanpon guztiek dituzte aurkia eta ifrentzua; arrosek, lorea eta arantzak...

29. IDIA EZ DA BAKARRIK UZTARTZEN

Uztartu: lotu, uztarrarian jarri (uztarri: yugo, yunta; joug, attelage)

Kontu batzuk ez dira berez gertatzen: geuk gauzatu behar ditugu, geure esfortzuz. Gainera, kontuan hartu idiek ez dutela izaten gogo handirik uztartuta egoteko... (neuk ere ez nuke edukiko, egia esanda; izan ere, ni ez naiz idi-ota*).

* Bai, txiste txarra da, aitortzen dut.

30. ITSASOAK BERE LEKUAK BEHAR DITU

Denok behar dugu geure lekua, geure espazioa; itsasoak ere bai. horregatik berreskuratu ohi ditu bere tokiak, gizakiok etengabe lapurtzen baitizkiogu. Horren esperientzia dute Louisianan, Herbehereetan edo Donostiako Paseo Berrian. Itsasoaren berezko lurretan eraikitzen duenak, bada, jakin dezala obra hori arriskuan egongo dela beti.

31. ITURRI TXIKIAK HANDIAK ADINA KENTZEN DU EGARRIA

Adina: bezainbeste, beste (modu berean)

Egarri zarenean, ura (edo beste zerbait) edan nahi izaten dugu, eta iturri bila ibiltzen gara, berdin diolarik iturrien tamainak. Izan ere, ura duten bitartean, berdin asetzen gaituzte iturri handiek zein txikiek. Horrek esan nahi du, bistan da, laguntza behar dugunean ez diogula ikusi behar laguntza hori nondik datorkigun. Labur esanda, larrialdietan exigentzia gutxi izan.

32. JAKINEK EZ DEKO KALTERIK

Deko: dauka

Jakiteak ez du, inola ere, kalte egiten; teoriarik, behintzat. Bueno, aber... mafia errusiarreko kide bazara, eta Georgiako mafiakoek harrapatzen bazaituzte, eta ondo badakizu non ezkututzen diren zure nagusia eta erakundearen diru guztia, agian ez da komeni den-dena jakitea... Edonola ere, euskal esaera zaharrak asmatu zituztenean ez zegoen mafiarik Errusian: bakarrik tartaroak, kosakoak, baregoak (vikingoak), eslaviarrak, khazariarrak eta besteren bat.

33. JURAMENTU ASKO, GEZUR ASKO

Juramentu: zin

Zin asko egiten dituenak, normalean, gezur asko esaten ditu; hortaz, ez fidatu zin-egileekin. Erdaraz: *Quien mucho jura, su descrédito procura* (kontuz: "procura" ez da "apaizen aldekoa").

34. KANPOAN LILI, TA ETXEAN ELORRI

Lili: lore / *Ta:* eta

Zenbait pertsonak arras jokaera ezberdina dute tokiaren arabera: kalean, jendearekin, atseginak dira (lore ederra dirudite); etxe barruan, berriz, senideekin-eta, arantzaz beterik agertzen dira (elorrria ematen dute). Antzekoa da, noski, "Kalean uso, etxean otso".

35. KULPA DUNA, MAIZ IXILIK

Kulpa: erru / *Duna:* duena / *Maiz:* askotan, sarri(tan)

Zerbait txarra egin dutenak isilik egoten dira, ez nabarmentzeko moduan. Despistatuarena egiten dute, eta era diskretoan ibiltzen dira, inork errepara ez diezaien. Oharkabean pasatzea da haien asmoa.

36. LAGUN ONAKIN, DESGRAZIAK HOBETO ERUATE'ITTUK/N

Onakin: onarekin / *Desgrazia:* ezbehar, zorigaitz, zoritxar/ *Eruate'ittuk/n:* eroaten (eramaten) dituk/ditun (dira)

Argi dago, ezta: une txarren bat pasatzen ari bazara (ekonomikoa, animikoa, laborala, sentimentala edo, muturreraino joanda, Athleticek/Realak/Osasunak/Alavesek/Eibarrek galdu duelako), zoritxar hori eramangarriagoa izango da lagun onak badituzu alboan.

37. LAUDATZAILEA, LAUDORIO-GOSE

Laudatzaile: laudorioak (gorespenak, alabantzak) egiten dituen

Irakurle argi, jator, dotore, prestu eta estimagarri hori, jakizu, arren, sarritan hitz edo ele politik erabiltzen ditugula asmo bakarra darabilgularik gogoan: geuk ere antzeko loreak jasotzea. Hala ote da benetan?

38. LEGE GUZTIAK BERE TRANPA

Arau guztiek dute zirrikitu edo bideren bat tranpa egiteko. Ondo dakite hori abokatuek eta abokatuen bezero batzuek, baita gure Esaera Zaharren Txapelketako parte-hartzaile batzuek ere (zer uste zenuten, ez ginela konturatuak?).

39. LUKIKUME, AZERI

Lukikume: lukiaren (azeriaren) ume

Lukien kumeak lukiak dira, euskaldunen seme-alabak, askotan, euskaldunak diren bezalaxe. Alegia, naturak markatzen du, hein handi batean, zer-nolakoak garen; eta naturaren herentzia horri ez dakiok (ezin zaio) ihes egin. Horregatik naiz ni naizen bezalako, eta zuri, irakurle, gauza bera gertatzen zaizu.

40. MAIATZA, URTEAREN GILTZA

Maiatza bosgarren hila da, eta esan daiteke urtearen erdialdean dagoela. Gainera, nekazaritzaren ikuspuntutik, hil berezia da: maiatzean ekaitzak edo eguraldi txarra izanez gero, hainbat landaketa gal litezke.

41. MENIAGATIK, IZKILURIK EZ ITZI

Menia: tregoa, su-eten / *Izkilu*: arma / *Itzi*: utzi, laga

Gerra baten erdian tregoa adostuta ere, ez fidatu etsaiaz; eta, batez ere, ez gorde armak. Badaezpada ere...

42. MILA URTE IGAROTA, URA BERE BIDEAN

Igarota: pasatuta

Urak bere bideak ditu eginda aspaldi-aspalditik, eta gertatzen dena gertatzen dela, horiek ditu bere bideak. Alegia, gauza batzuk ez dira sekula aldatzen. Esaera hori (ustezko) Erdi Aroko abesti batean agertzen da, "Beotibarko kantua" izenekoan hain zuzen:

"Mila urte igarota / ura bere bidean.

Gipuzkoarrok sartu dira / Gazteluko etxean,
nafarrokin batu dira / Beotibarren pelean..."

Gudu hura 1321. urtean jazo zen; baina, antza denez, ordurako ohikoa zen gipuzkoarrak (Gaztelaren alde) eta nafarrak borrokan aritzea elkarren kontra. Beraz, lehen esaldi poetikoak esan nahi du egon badaudela denboraren iragateak ere ezin alda ditzakeen gauzak: antzinako gipuzkoarren eta nafarren arteko lehia, adibidez.

43. MINIK HANDIENAK, BURUTIK HELDU DIRENAK

Mina badugu gorputzean, nolabait konpondu ahal izango dugu; min hori, aldiz, burutik badatorkigu, pentsamendutik (kezkak, damuak, atsekabeak, nostalgiak, tristurak...), orduan zailagoak dira sendatzen. Zer esanik ez, buruko gaixotasunei buruz hitz egiten badugu...

44. NAHI DUNAK GEHIAGO EGITEN DU, AHAL DUENAK BAINO

Dunak: duenak

Gaitasuna baino, maiz prestasuna da garrantzitsua. Mesede bat eskatzen badiezu bi pertsonari, nork lagunduko dizu gehien: ahal duenak ala nahi duenak? Argi eta garbi dago: nahi duenak laguntza handiagoa emango dizu, gogoz ariko da-eta. Besteak, gaitasuna izanda ere, ez du gauza handirik egingo, borondatea faltako baitzaio.

45. NEU NAGUSI ALA MUTURRAK HAUTSI

Hautsi: apurtu / *Mutur*: giza aurpegiaren ezpain-aldea

Batzuek nahiago izaten dute indarraren arrazoia, arrazoiaren indarra baino. Horrelakoek ez dute argudiorik erabiltzen beren ideiak defendatzeko; aitzitik, indar hutsaz baliatzen dira besteak "konbentzitzeko", mehatxuka. Indarkeria versus elkarrizketa, ohiko dikotomia...

46. NON ERROMERI, HAN SANTA MARI

Erromeri: erromeria

Pertsona batzuk jaiz jai ibiltzen dira, apurtu ezinezko joera baten menpe. Horrelakoa zara zeu ere? Ni ez, jakina.

47. NON ZALDARRA, HAN ATZAMARRA

Zaldar: pikorta, garau, "grano" / *Atzamar*: hatz, eri

Nahikoa da arazotxo bat izatea, edo min txiki bat, edo ahulguneren bat, mundu guztiak horri erreparatzeko eta horrexetan tematzeko. Asmo txarrez egiten dute? Baliteke...

48. NOR BERE BIDEAN, DENAK GALDU HONDARREAN

Hondar: azken

Bide batean hainbat kiderekin bazoaz, eta nork bere bidetik jotzen badu elkarri kasu egin gabe, azkenean denak galduko zarete, eta inor ez da iritsiko helmugara. Beraz, argi dago: adostasuna, elkar-ulertzea eta elkartasuna behar dira, denok batera onik hel gaitezen bidearen amaierara. Amen.

49. NORI, NOLA MINTZA

Mintza: mintzatu, hitz egin, berba egin

Testuinguruaren arabera jokatzeko da zentzuzkoena; hortaz, ondo pentsatu nola hitz egingo diozun aurrekoari. Kontuan hartu nor den, zer dakien, nolakoa den, zer entzun nahi duen, zer espero duen zuregandik... ez da gauza bera 5 urteko ume bati berba egitea, horren amari edo horren aititeri... Edozein hizlarik daki bere hizkera moldatu behar duela entzuleen ezaugarrietara: euskalkia edo batua, abiadura, tonua, erregistroa (lagunartekoa, jaso, neutro)... Mundu guztiari ezin zaio (ez da komeni) berdin mintzatu. Aittu'aldek/n?

50. OFIZIARIK TXARRENA, MORROIAREN MORROI

Morro: zerbitzari gizonetako, mirabe, otsein (bai, garbigailu-marka bezala), sehi

Morroiek asko dakite: lan gutxi egiteko trikimailuak, adibidez. Beraz, morroia bazara eta zure nagusia morroi ohia bada, truko guztiak ezagutuko ditu, eta ezin izango duzu engainatu.

Gainera, morroiek nahiko bizitza miserablea izaten dute; hortaz, egoera horretatik pasatua denez, morroi ohiak ez ditu ondo tratatuko bere morroiak.

51. OIHAL ZURIAN ERORTZEN DA MANTXARIK HAUNDIENA

Oihal: ehun, tela

Askotan, zortea oso gaiztoa izaten da ("zorigaitza" esaten zaio horrelakoetan), eta aukera guztietatik emaitzarik txarrena tokatzen da. Horregatik, non eroriko da mantxarik handiena? Bada, lekuri txarrenean: hots, oihal zurian (hor gehiago nabaritzen delako, eta zailagoa delako garbitzea). ogi-tostadaren legea da: jaustean, gurina eta marmelada dituen aldeak ukituko du lurra.

52. ON BILA, ON BILA, AZKENIAN BONBILLA

Azkenian: azkenean

Andregai edo senargai onenaren bila aritu eta gero, eta hainbat aukera baztertuta nahiko onak ez direlako, azkenean edonor onartzen zuenari esan ohi zitzaion. Hau da: gauzarik onaren bila denbora luzez eman ostean, topatu ez eta azkenean txarrenarekin gelditu behar. Nori ez zaio gertatu? (niri ez, batez ere neska-lagunarekin; argi gera bedi!). Beste kontu batzuei ere aplikatu dakieke: luzaro ibiltzen bazara gauza on-on bat lortu nahian (etxea, lanpostua, bidaia...), bidean topatzen dituzun aukerei muzin egiten badiezu zuretzat aski ez direlakoan, aukerarik gabe geratzen

zarenean zerbait txarra edo arrunta onartu beharko duzu. Hitz gutxitan: ez utzi aukerei alde egiten.

53. ORAIN EZ DA HAURRIK

Orain gazteenek ere pentsatzen dute asko dakitela: helduek baino askoz gehiago, jakina. Hortaz, gazte horiek heldutzat daukate beren burua, eta ez dute onartzen umetzat hartzea. Arrazoi dute? Dena dakite? Ez dut uste, baina aitortu behar da helduok ere ez dakigula guztia...

54. OSABA BAT DUENAK ALCALAN, EZ DU OSABARIK EZ EZER

Alcala: Alcalá de Henares, Madrilgo herri famatua. 194.310 biztanle ditu (2017ko urtarrilaren 1ean), eta bertan du egoitza Unibertsitate Konplutentseak (hain zuzen, *Complutum* zen Alcalaren antzinako izena, latinez)

Ahaide urrunak edukitzea ondo dago teorian; baina, praktikan, bost axola (hau da, praktikan ez da praktikoa); izan ere, arazoren bat baduzu, nola lagundu ahalko dizu Alcalan (edo Tarifan, edo Calaisen...) duzun ahaide batek? Ezin izango du, eta batek daki nahi izango ote duen. Antzeko mezua dakar beste esaera honek: "Urruneko senidea baino, hobe auzokoa".

55. OSASUNA IZATEKO, GUTXI BAZKALDU ETA GOIZ AFALDU

Argi dago, ezta? Edozein medikuk esango dizu, osasuntsu bizi nahi baduzu, kasu egin beharko zeniekeela bi aholku on hauei: gutxi bazkaldu (asko bazkaltzea txarra baita, tripa gehiegi betetzeak digestio-aparatua lan handiegia egitera behartzen duelako) eta goiz afaldu, ohera joan baino dezente lehenago (berandu afaltzea ere txarra da-eta, balitekeelako gero lo egiteko arazoak edukitzea, eta, lokartuta ere, bestelako kalteak sor daitezkeelako: digestio txarra, bihotzerrea, errefluxua...). Alegia, elikadurak eta elikatzeko erak zerikusi handia dute osasunarekin.

56. OSTIKADA EZ BESTE GUZTIAK HARTU BEHAR DIRA

Ostikada: ostiko (oinaz ematen den kolpe edo ukaldi)

Opari guztiak onartu behar dira (liburuak, argazkiak, janariak, disko edo DVDak...), mesprextatu barik, gure beharragatik ez bada (agia, beste inoiz ondo etorriko zaizkigulako), gutxienez emaileari eskerrona adierazteko, ziur aski asmorik onenarekin egin baitigu oparia. Salbuespenik? Bai, jakina: gauza txarrak, irainak eta kolpeak, esaterako.

Bada, dena den, beste interpretazio posible bat: bizitzak ematen dizkigunak jasotzen jakin behar dugula: hala pozak, nola tristurak; garaipenak nahiz porrotak; bai une onak, bai momentu garratzak... Hori bai, beti asertibotasunez (Wikipedia: asertibotasuna da giza harremanetan pertsona batek besteei eraso gabe, edota besteekiko menpekotasuna erakutsi gabe, jokatzeko duen gaitasuna).

57. OTARRE BAT EGITEN DUENAK EGIN DITZAKE EHUN ERE

Otarre: saski, otzara, zare, zesto / *Ditzake*: ahal ditu

Edozein lanetan, hastea da kontua. Gainera, inportanteena da gauzak egiten jakitea. Beraz, hasten bazara otarreak egiten, eta baldin badakizu ondo egiten, denbora-kontua baino ez da izango ehun ere egitea. Esaera

honek, begi-bistakoa denez, esperientziaren eta jakituriaren apologia egiten du.

58. OTSEINA, ETXEKO LEZ

Otsein: morroi, mirabe, sehi / *Lez*: legez, bezala

Antzina, morroiak baserrietan bizi ziren, bertako famili(ar)ekin batera. Hori zela-eta, ia den-dena partekatzen zuten nagusiekin (otorduak, lana, aisia, kezkak, sentimenduak...), etxekotzat zituzten, ia senidetzat (izan ere, benetako ahaideak izaten ziren morroi batzuk: anaia/osaba/lehengusu mutilzaharrak-eta). Hitz gutxitan: zurekin bizi dena, azkenean, zeure bizitzaren parte bihurtzen da, odol-harremanik izan gabe ere.

59. OTSOAK BASOAN GUTXI, BAINA ASKO HIRIAN

Piztiak ez daude soilik baso-oihanetan: piztia ugari dago gure artean, pertsona-itxuraz. Odolzaleak, berekoiak, gaiztoak eta krudelak izaten dira horiek: benetako piztiak baino okerragoak. Horregatik esaten zaie hiriei "jungla". Gainera, gaur egun, aukera gehiago dituzu horrelako gizaki "otso" bat topatzeko, benetako *Canis lupus* bat baino.

60. OTSOARI IHESI ETA HARTZAK ATZEMAN

Atzeman: harrapatu

Egoera zail batetik ateratzeko, okerrago batean jaustea ez da konponbide ona. Gogoratu Iparragirre bertsolari-kantariaren kasua: Euskal Herritik Ameriketara joan zen, hemen pobrezian bizi zelako; bada, 19 urteren buruan, jaioterrira itzuli behar izan zen, Uruguain pobreago bizi zelako hemen baino. Erdaraz: "De Guatemala a Guatepeor" (ez bilatu "Guatepeor" Google Mapsen, badaezpada ere diotsuet).

61. PAZIENTZIA, ZAURI GUZIEN GOZAGAILU

Guzi: guzti / *Gozagailu*: gozatzen, kontsolatzen duena

Pazientziak arazo guztiak gozatzen eta ematen ditu. Ez du, berez, ezer sendatzen edo konpontzen, baina ondo dago kontsolamendu apur bat. Pazientzia (erroa *pati* da: latinez, "sufritu") bertutea da kristaudentzat, eta jarrera filosofikotzat ere har daiteke. Hortaz, izan eroapena, baita azalpen hauek irakurtzeko ere!

62. PIXKE TA PIXKE, PUSKE

Pixke: pixka (Kopuru txiki, apur) / *Puske*: puska (zati)

Pixka askok, bilduta, puska handia egiten dute. Gogoan duzue Lola Floresen ideia bitxia? 1987an, Espainiako Ogasunak salaketa jarri zuen haren aurka, 47 milioi pezetako iruzurra egin zuelakoan (282.475,69 €). Garai hartan Espainiako Estatuak 40 bat milioi biztanle zituenez, zera esan zuen *bailaorak*: "Espainiar bakoitzak pezeta bat bakarrik emango balit, ordain nezake zorra" (horregatik, batzuek diote hark asmatu zuela "crowdfunding" sistema).

63. POBREEN ARRAZOIA, BETI SOBERA

Nori axola dio zer esaten duten pobreek? Inori ere ez, normalean. Izan ere, denok egoten gara adi ea zer dioten aberatsek eta boteretsuek, baina pobreen aldarrikapenek oihartzun eskasa izaten dute jendartean. Gogoan izan harako esaera zahar hura: "Hiru gauza dira munduan alferrik galtzen:

basoan egurra, alferraren indarra eta pobrearen arrazoia" (lasai, aurten ez dugu zerrendan sartu).

64. PREPARAU BARIK, EZTA EDARRIK

Preparau: preparatu, prestatu, apaindu / *Edar*: eder

Oso polita da "edertasun naturala" izeneko kontzeptua, baina ez da izaten egiazkoa. Normalean, edertasuna ez da izaten guztiz naturala; aitzitik, prestaketak behar izaten ditu. Gauza bera gertatzen da hitzaldietan: norbaitek oso modu "naturalean" hitz egiten badu, horrek esan nahi du, kasu gehienetan, ordu asko eman dituela berba egiteko modua prestatzen.

65. RAU-RAU-RAU, TXAKURRAK JANGO, NI EZ BAIE HEU!

Baie: baina / *Heu*: hi (bigarren pertsona singularra)

Alegia, biok arrisku baten aurrean bagaude, nahiago dut zeu ateratzea galtzaille, eta ez ni. Norberekoikeria? Bai; bizirauteko sena? Baita ere; eskuzabaltasun-gabezia? Baietz!

66. SALTSA HOBERENA GOSEA DA

Hoberena: onena

Saltsen funtzioetako bat izan da, beti, janariari zapore hobe ematea, baita haren itxura hobetzea ere. Horregatik, saltsak ipintzen zaizkie gozo-gozoak ez diren jakiei (arrain- edo okela-mota batzuei, kasu), lehenik platerak erakar dezan jan behar duen pertsona, eta gero janaria goxo egion dadin. Alabaina, benetan gose bazara, ez duzu beharko jakiek itxura ona izan dezan: berdin-berdin jango duzu ia edozer. Zizeron filosofoak esan omen zuenez, "Gosea da ongailurik onena" (ongailu = condimento / assaisonnement).

67. SALTZEN DABILENA GALTZEN DABIL

Zerbait saltzen dugun bakoitzean (etxea, autoa, liburua, diskoa, arropa...), galdu egiten dugu saldutakoa. Jada ez da gurea, desagertu egiten da gure bizitzatik. Horregatik, kontuz ibili behar gara gauzak saltzen, galera handiak izan ditzakegu-eta (oroitzapenak, adibidez). Gaztelaniaz antzeko esaera dute: "El que anda a vender, anda a perder".

68. SAN JUAN, NEKEZ ETORRI TA ARIN JUAN

Ta: eta / *Juan*: joan

San Juan gaua jai ospetsua da, Euskal Herrian ez ezik, mundu osoan, eta erro luzeak ditu (lasai, ez dugu ezer esango ospakizun horren jatorri pagano kristautasunaren aurrekoaz). Tradizio handia du, eta errito asko egiten dira egun horretan; horregatik, jendea zain egoten da ekainaren 23ko gaua noiz ailegatuko (hots, udako solstizioa), jai urtean behin bakarrik egiten da-eta. Horregatik dio esaerak "nekez datorrela" (urtebetez itxaron behar da) eta "arin doala", horrelako egun alaiak aitaren batean pasatzen direlako.

69. SAN SEBASTIAN TRAPATATAN, MUCHA BANDERA Y POCO PAN

Jai batzuek horixe dute: handikeria edo ponperia handia, baina gero ez diote ezer eskaintzen jende xeheari. Gaur egun ez da horren ohikoa, baina garai batean janaria eta edaria banatzen ziren ospakizun publikoetan (Donostiako Danborradan izan ezin, antza).

70. SARTU EZ ETA KENDU, HORRELA EZIN MANTENDU
Itsulapikoa da adibiderik onena: pentsa ezazue 313,83 € dituzuela gordeta; apurka-apurka, hasten bazarete diru hori ateratzen eta gastatzen trukean ezer sartu barik, zer gertatuko da azkenena? Horixe! Itsulapikoa hutsik geratuko da ("hutsilapikoa", beraz). Gaztelaniaz ere badute antzeko esaera bat, errima eta guzti: "Quita y no pon, se acabó el montón".
71. SARRITAN JOANDA, ASTOAK ERROTAKO BIDEA IKASI
Adimen eskasa izanda ere, ibiliaren ibiliaz ikasten dira gauzak; hortaz, askotan errepikatzen baduzu ekintzaren bat (edo bideren bat), azkenean buruz ikasiko duzu, nahitaez.
72. SASIK ERE BADITTU BEGIK
Sasik: sasiak / *Badittu*: baditu
Non-nahi, gutxien uste den tokian, sasi artean ere, izan liteke ikusle bat, zelatari bat. Beraz, kontu zer egiten duzun, nahiz eta pentsatu bakar-bakarrik zaudela.
73. SEKRETUA LAGUN BATI BAKARRIK: ZEURI
Ez kontatu sekreturik inori, nehuri, nihori, ihori, ihuri, nihuri, ehuri ere. Izan ere, beste norbaitek jakin bezain laster, sekretuak publiko bilakatzen dira, oso zaila baita ezkutuko kontuak isiltzea, inori jakinarazi gabe.
74. SO EGILEA, DANTZARI EDER
So egin: begiratu, behatu
Kanpotik ikusita, denak dirudi oso erraza. Horregatik, edozein ikuskizunetako ikusleek pentsatu ohi dute (dantza, antzerkia, pilota- edo futbol-partida, edo obra publikoren baten aurrean) haiek hobeto egingo luketela bertan ari diren profesionalak baino.
75. SUGEA HILAGATIK, SUGAKUMEAK BIZI
Hilagatik: hil arren, hilda ere / *Sugakume*: sugearen ume
Arazoak ez dira berez desagertzen: askotan, ondorioak dituzte. Sugea hil dezakezu, baina baliteke sugakumeak hor zehar egotea; hala geratzen bada, arazoak bere horretan segituko du. Konponbidea? Arazo osoari aurre egitea, ez soilik atal bati. Alegia, arazoak osotasunean aztertu behar dira, eta soluzio globalak eman.
76. SUHI ONA, SEME BAT GEHIAGO; SUHI TXARRA, ALABA BAT GUTXIAGO
Suhi: alabaren edo semearen senarra (ez nahastu *Feng suhirekin*, e!)
Familian "fitxaje" bat egiten baduzu (zure semeak edo alabak bikotekidea hartu duelako), pertsona berri horrek ondorio onak edo txarrak ekar ditzake: suhia (edo erraina, berdin dio) ona bada, beste bat familiarako; suhia (edo erraina), osteria, txarra bada, baliteke, haren eraginez, zeure alaba (edo semea) zuengandik urruntzea.
77. TABERNA EZ DA GIZA EGILEA
Giza egile: gizaki egiten gaituena, hezten gaituena
Tabernak ez omen dira leku egokiak pertsona moduan hezten gaituzten gauza aproposak ikasteko: heziketa ona, kultura, kortesia, hitz politak,

keinu dotoreak... Horretarako, eskola eta familia daude (teorian, behintzat).

78. TIPIAN IKUSIA, BETIKOTZ IKASIA

Tipian: txikitan / *Betikotz*: betiko

Txikitan ikusten eta ikasten duguna betiko geratzen zaigu iltzatuta burmuinean. Niri, behintzat, hala gertatu zait kontu batzuetan.

79. TRIPAK MUGIARAZTEN DITU HANKAK

Gose garenean, edozer egiteko prest gaude. Pizgarri ona da gosea, abian jar eta mugi gaitezen.

80. TXIROAK, ARLOTEA HIGUIN

Txiro: pobre, behartsu / *Arlote*: bidean eta eskean bizi dena / *Higuin*: nazka

Arloteak etxez etxe ibiltzen ziren (edo dira) etxez etxe, eskean. Bada, txiroei ez die batere graziarik egiten arloteak topatzeak, miseria partekatu behar dutelako haiekin. Azken batean, konkurrentzia dira negozio berean.

81. TXORIAK GOITIK, EKAITZA BEHETIK

Txoriak ez dira tontoak, eta senak laguntzen die eguraldia iragartzen; hortaz, txoriak zeruan gora ikusten badituzu, jakizu ekaitza lehertuko dela behean.

Bestalde, tontoak ez direnez, txoriek ekaitza sentitzen dutenean behean, gora joango dira, harrapa ez ditzan. Badugu zer ikasi txoengandik!

82. TXOROAK BERE BURUA BETI JAUNTZAT

Txoro: zoro, ero / *Jauntzat*: jaun moduan

Zoroek pentsatu ohi dute jaunak direla; alegia, gehiagotasunezko konplexua izaten dute.

Ulertu duk/n, esklabo miserable eta ziztrin horrek?

83. TXURRUT BAT, TXURRUT BI; KONTURATZEKE ZILIPURDI

Txurрут: zurrut, hurrupa (ga: trago, sorbo; fr: gorgée, trait) /

Konturatzeke: konturatu barik, ohartu gabe / *Zilipurdi*: itzulipurdi

Alkohola arriskutsua da, batez ere adi egoten ez bagara. Hasten bazara apur bat edaten, lasai-lasai eta lagunartean, baliteke konturatu gabe mozkortzea, eta orduan komeriak! Neure eskarmentutik diotsuet...

84. ULITXEK LEHOINA EROARAZTEN

Ulitxe: ulitxa, eltxo / *Lehoina*: lehoia / *Eroarazi*: erotu + arazi (ga: hacer enloquecer; fr: faire devenir fou/folle)

Eltxoak lehoia baino askoz txikiagoak dira; halere, eltxo bakar batek, ziztatu eta ziztatu, burrunba eta burrunba, hegaz handik eta hegaz hemendik, eromenera eroan dezake lehoia ere. Labur esanda: tamaina alde batera utzita, nork bere armak ditu besteen (edo arazoan) kontra aritzeko, haiek oso handiak izanik ere.

85. UNAIK HASERRA ZITEAN, GAZTAK AGER ZITEAN

Unai: behizain, behiak zaintzen dituen (ingelesez, cowboy;

nederlanderaz, koeman) / *Haserra*: haserretu / *Zitean*: zitezen, ziren /

Ager: ageri, agertu

Behizainak haserretu ziren elkarren artean, eta orduan agertu ziren gaztak (desagertuta zeuden-eta). Antza, bakarrik egoera serio jartzen denean konpontzen dira benetan arazoak eta azaleratzen dira barruko sentimenduak.

86. URDAIA ETA ARDOA, URTEKOA; ADISKIDEA, URTEETAKOA
Denborak bihurtzen ditu gauza batzuk baliotsu (txanponak eta lagunak, adibidez), baina beste batzuei balio kentzen die (urdaiari, esaterako; ardoari buruz, ez nator bat esaerarekin, niri ardo onduak gustatzen zaizkit-eta). Hortaz, denboraren eragina erlatiboa da, baina guztiz erabakigarria.
87. URE PASAUTA ANDAPAREA EGIN
Ure: ura / *Pasauta*: pasatuta, igarota / *Andapare*: antapara (errotara ura eramaten duen ubide)
Antapara behar-beharrezkoa da burdinolek funtzionatzeko: hortik pasatzen da ura, zeinak martxan jartzen duen ardatza, eta horrek gabia edo mailua. Beraz, ura pasatu bada, alferrikakoa da antapara. Horrek esan nahi du gauzak garaiz egin behar direla; izan ere, une egokia igarota, hainbat kontu ezin dira jada egin edo konpondu.
88. URRI, BAINA ONGI
Urri: gutxi, eskas
Gehiegi beti da txarra. Hobe da gutxi, baina neurrian (edarian, jakietan, lanean, jokoan, kirolean, zaletasunetan, sexuan... bueno, sexuan ez nago horren seguru).
89. URRUN JOAITEKO, GOAZEN ERREPOSKI
Joaiteko: joateko / *Erreposki*: geldiro, emeki
Bidaia (edo jarduera) luzeetan, komeni da astiro aritzea, gehiegizko presak ez baitu laguntzen. Txinatarrek aspaldi esan zuten moduan, "Hamar mila kilometroko bidaia urrats bakar batekin hasten da" (baliteke esaldi horrek zerikusi handirik ez izatea gure esaerarekin, baina niri gustatzen zait, eta neuk idazten ditudanez azalpenok...).
90. USTEA EZ DA JAKITEA
Mila milioi iritzi daude (gutxi gorabehera), baina oso egia gutxi. Asko hitz egiten dugu edozertaz, baina ezer gutxi dakigu benetan. Ondo dakiguna bakarrik esango bagenu, isilik geundeke gehienetan. Hortaz, kontu egin zer esaten dugun. Ni daborduko isilduko naiz.
91. URTEAZ EZ ERRAN GAIZKIRIK ABENDUA BURUTU ARTE
Erran: esan / *Burutu*: amaitu
Luzea da urtea, eta ez dakigu zer gertatuko den harik eta hamabigarren hileko azken eguna igaro arte. Une horretara arte, ez dago jakiterik urtea ona edo txarra izan den, edozer gerta daiteke-eta.
92. ZAHAR HITZAK, ZUHUR HITZAK
Esaera zaharrek arrazoi izaten dute beti (edo, gutxienez, gehienetan). Zahar bezain zuhurrak dira, izan ere.
93. ZAKUR ZAHARRAK, ADAUSI HANDIRIK EZ

Adausi: zaunka, sainga (txakurrek egin ohi duten zarata hori)
Txakur zaharrek ez dute zaunka askorik egiten, hainbat arrazoirengatik: batetik, nekatuta daudelako (adinarengatik); bestetik, badakitelako alferrik dela, asko saiatuta ere; azkenik, gaztaroko harrokeria joan zaielako. Esango nuke antzeko zerbait geratzen zaigula gizakioi ere.

94. ZENBAIT ALDIZ, ON DUGU DAZKIGUNEN AHANZTEA

Dazkigunen ahanztea: dakizkigunak ahaztea
Inoiz, komenigarria izan daiteke dakigun zerbait ahaztea, oroitzapena txarra delako, kalte egingo digulako, edo une horretan txarto datorkigulako. Amnesia ez da beti kalterako.

95. ZIRKO GUZIETAN, PAILAZOAK

Zirkuan denetarik egoten da: trapezistak, malabaristak, akrobatak, ilusionistak, eskapistak, fakirrak eta, nola ez, baita pailazoak ere (bai, azalpen honek 20. Korrikaren kanta dirudi). Zer esan nahi du esaerak? Bada, leku guztietan daudela pertsona irriarri edo barregarriak... Hortaz, zuri esaten badizute horrelakorik, ez pentsa laudoriorik egiten dizutenik... Hori bai, bihoakie benetako pailazoei (profesionalei) gure aintzatespenik sentikorrena.

96. ZOZO ASEAK, GINGAK HIGUIN

Zozo: urretxindorraren familiako txoria, luma beltzak eta moko laranja (arrak) edo lumadi arrea eta moko horixka (emeak) dituen (*Turdus merula*) / *Ase*: bete / *Ginga*: / *Higuin*: nazka
Behin gure apetak lortuta (mota guztietakoak: janaria, edaria, sexua, jokoa, erosketak...), asetasun-egoera batean murgiltzen gara, non ez dugun besterik nahi denbora batez. Gabonetan gertatzen da: urtarrilaren 2an ez gara gose izaten, aurreko egunetako oturuntzen erruz.

97. ZUHAITZ IHARTUA, SUTARA

Ihartu: *lehortu*, *sikatu*
Gure gizarte kontsumista desnaturalizatu bihozgabe honetan, baztertu, suntsitu edo bota egiten dugu erabilera praktikorik ez duen guztia. Lehen, zuhaitz sikuek beheko suan amaitzen zuten, nolabait aprobetxatzeko. Nago, gaur egun, beste batzuk direla zuhaitz ihartuak, eta beste batzuk suak.

98. ZUHURRAREN OLIOA, KATUAK EDAN

Zuhur: zeken, zikoitz (ávaro/a, tacaño/a; avare, radin/e)
Pertsona zuhurrek aurrezteko joera dute. Garai batean, argindarrik ez zegoenean, ohikoa zen olio erabiltzea etxeak argitzeko (olio-lanparen bitartez). Zuhurrak, ziur aski, saiatuko ziren olio gutxi gastatzen, eta ahalik eta gehien gordeko zuten. Katuek, baina, oso usaimen zorrotza dutenez, azkenean topatuko zuten olio hura (askotan, balea-olioa) eta poz-pezik edango zuten.
Azkenean, beraz, alferrik izaten da gauzak aurrezte edo gordetzea.

99. ZURI(A)N BELTZA JARRI EZKEROZ, HAN GELDITZEN DA

Jari ezkeroz: jarriz gero

Berbak haizeak eroaten dituenek, uste orokorra da askoz iraunkorragoak direla dokumentu idatziak, non tinta (beltza) betikotua geratzen baita paperean (zuria). Dokumentuak dokumentu dira.

100. ZUZENTASUNA NAHI DUENA BERE ETXETIK HASI BEDI

Bedi: dadila

Hipokrisiarik ez: ideologia, praktika edo jarrera baten aldeko aldarria egiten baduzu, zeuk ere jokatu behar duzu horren arabera, koherentea izango bazara. Hala, euskaltzale gisa jokatzeko baduzu katean, euskaraz egingo duzu etxean; ezkerrekoa bazara, ez duzu langilerik esplotatuko zure negozioan; feminismoaren aldeko agertzen bazara, partekatuko dituzue etxeko lanak denon artean... Argi, ezta?